



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO IRAILAREN 8KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2020ko ekainaren 30eko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko doktore ikertzaile iraunkorraren plaza betetzeko (2020ko uztailaren 15eko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere ikusi daiteke (<https://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiak jakin dezaten.

Leioa, 2020ko irailaren 8a.


Errektorea

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03 EHAA).

**INMACULADA
GUERRICAGOI
TIA MARINA**

Firmado digitalmente por INMACULADA GUERRICAGOITIA MARINA
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=UPV - EHU, ou=PDI, ou=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, ou=Ziurtagiri korporatibo onartua - Cert. corporativo reconocido, ou=Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko, dnQualifier=-dni 30604766T -cif Q4818001B, cn=INMACULADA GUERRICAGOITIA MARINA, givenName=INMACULADA, sn=GUERRICAGOITIA, serialNumber=30604766T
Fecha: 2020.09.08 12:07:38 +02'00'

Izpta.: Inmaculada Guericagoitia Marina
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 - D00019-1. Kategoria: Doktore ikertzailea.
Jakintza arloa: Pediatria. Saila: Pediatria. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.
Hizkuntza eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Gaixotasun neuromuskularren mekanismo molekularrak".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: AINARA VALLEJO ILLARRAMENDI
NAN: ***5423**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez